



Balorezko Proposamena

Gure produktuak kalitatean zentratzeko diseinatuta daude, eta, horretarako, prezioen bereizketa egingo dugu, produktua garatzeko erabiltzen diren materialen arabera; izan ere, produktuaren materialaren arabera, prezioak aldakorrak izango dira. Horrekin lortu nahi duguna ahalik eta jende gehienarengana iristea da, maila sozioekonomiko baxuagoa duten familiek ere gure produktu egokituak erosteko aukera izan dezaten, nahiz eta kalitatea baxuagoa izan. Prestazioak, produktuen pertsonalizazioa, eskuragarritasuna, diseinua, prezioa eta gure produktu guztiak erabiltzaileei lana errazteko pentsatuta daude.

Horregaitik, bezeroak prest egongo dira gure produktuengatik ordaintzeko, kalitatezko, egokitutako eta hezkuntza balio handiko materialak eskaintzen ditugulako, gainera, gaur egun materiala oso garestia denez, gure erronka prezio baxuekin lehiatzea izango da. Horrekin bat, beste merkatuetan aurkitzea zaila den esperientzia pertsonalizatu eta inklusiboa ematen dugu.

Erabiliko ditugun materialak plastikoa, egurra eta material naturalak eta birziklatuak izango direla kontuan hartuta, prezioen estimazio bat egin dugu. Produktuari dagokion materialean oinarrituta, prezioa aldagarria izango da, lehen aipatu dugun bezala, ahalik eta jende gehienarengana iristeko asmoarekin, familia bakoitzaren maila sozioekonomikoa edozein dela ere. Hona hemen gure prezio estimazioa, materialen arabera:

- **Plastikoa (0-33):** Ekoizpen merkea, moldagarria, ingurumen kostu txikia.

- **Egurra (34-66):** Lan gehiago eta kalitate ertaineko materialak behar dira, neurrizko kostua du.

Materialak	Kostea	Tartea(0-100)	Batez besteko balio errepresentatiboa
Plastikoa	Baxua	0-33	20
Egurra	Ertaina	34-66	50
Naturalak/ Birziklatuak	Altua	67-100	85

- **Material naturalak/Birziklatuak (67-100):** Prozesu garestiagoak, eskuragarritasun txikiagoa edo artisau ekoizpena dakarte.

